

## **BEZERO SEGMENTUAK**


Gure plataforma, Startworking, funtsezko bi taldeei laguntzeko diseinatuta dago. Alde batetik, lan bila dabilzan gazteentzat eta bestetik, talentu freskoa bilatzen duten enpresentzat.

EAEko 16 eta 24 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago gure plataforma, karrera profesionalak hasteko edo garatzeko lan-aukerak bilatzen dituztenak hain zuzen ere. Hala ere, geroago zabalkuntza handiago bat izango dugu ahalbidetzen duena mundu guztian zehar aukerak izateko eta ez mugatzeko eremu espezifiko batean bakarrik.

Norberaren trebetasunetara, esperientziara eta asmoetara egokitzen den enplegu pertsonalizatua bilatzen laguntzen dugu eta tokiko zein nazioarteko lan-aukerak eskuratzea ahalbidetzen diegu gazteei. Horrela laguntzen diegu etorkizuneko langileei lanbide-garapenean interesa izatea eta hezkuntza-baliabide garrantzitsuak eskuratzea.

Gure beste bezeroak enpresak dira. Gure plataformarekin enpresak erraz aurki ditzakete beren behar eta nahiekin bat datozen hautagai kualifikatuak. Gure helburua bi talde horiek modu eraginkorrean konektatzea da, aukera esanguratsuak sortuz eta hazkunde profesionala sustatuz.

### **Langabezia tasa urteen arabera**



Grafiko honetan ikusi ahal dugun bezala, 16-24 urteko biztanleria aktiboa zailago izango dute lana aurkitzea. Langabezia askoz altuagoa da eta desberdintasun honekin amaitzeko beharra dago.